

*Jon Eizmendi Goiburu***\*BERTSO PAPERAK**

- 1** Goiko ganbaran hurbildu nintzen  
jostailu zaharren sailera  
hantxe zegoen hautsez beterik  
ilusioen ilera  
zoko batean utzi bezala  
osatzen zuten bilera:  
herriko plazan egun argitan  
jendetzaren ibilera.
- 2** Kanean bilduz, sakabanatuz  
zein bere bidetik joanez,  
bat bestearen arrotzak gara  
alkarri "agur" esanez  
gure bihotzak estali dira  
hauts irinaren laztanez,  
etsi genuen jostailu ezin  
erabiliak izanez.
- 3** Hartu ditzagun jubilatuta  
gizon helduen usteak,  
min egiten du hoietan batzuk  
zer dioten ikusteak  
"gatzik gabeko alperrak dira  
gaur eguneko gazteak"  
beren buruak zahartzat dauzkaten  
mezu seinale tristetak.
- 4** Hoiien ondoan emakumeak  
urtetan joan dira hola,  
lan isilean seme alabak  
hazi beharrez inola  
haiei eskeiniz berak sekulan  
izan ez zuten eskola  
esan zieten etxetik kanpo  
borrokarik ez zegola.
- 5** Gaurko gazteak erruz daukagu  
heldu hoiei ikasteko  
bainan batipat emakumeoi  
garbi esaten hasteko  
zuen betiko lan gogor hortan  
asko dago miresteko  
nahi izatea ez dugu aski  
zuen maila iristeko
- 6** Gazteak trapu hutsak geranik  
arren, etzazue uste  
edo bestela gure larruan  
zeuok ipini zaitezte  
biziak badu guretzat ere  
makina bat buru hauste  
zuen adinez aldeko batzuk  
manipulatzen gaituzte.

- 7 Batzuk sastaka ari zaizkigu  
nondik jo eta non hautsi  
egia guztiz beretu zuten  
orain ezin errez utzi  
nor den jatorra, nor den etsaia  
nahi digute erakutsi  
Hernanin dago gorroto asko  
eta politika gutxi
- 8 Alde guzitan gaztetasunaz  
atera nahi da etekin  
beti badabil jakin usteko  
zenbait argitu ez jakin  
odolak hola berotzen dira  
ideia bereziekin  
kontuz ibili gaitezen denok  
egia duenarekin.
- 9 Zu zeu gaztea baldin bazera  
hasiko zinen ohartzen  
hamaika ahots ari zaizula  
soluzioak ekartzen  
halakoetan zuzen miatu  
nondik zer zabiltzan hartzen  
ados bazaude aurrera baina  
ez utzi norinahi sartzen.
- 10 Telebistari begira berriz  
ez beti fio egoki  
ispilu horrek jende askotxo  
liluratzen du arrunki  
nahi baldin badu hau gorde eta  
hori erakusten daki  
ilargiaren antzera sarri  
aurpegi bat daramaki
- 11 Kontraesanen erdian dabil  
denon izate osoa  
beti ziurra ezin da izan  
zure aurrerapausoa  
bainan baztertu dogmatikoen  
irten bide eroso  
eta burua erabilzazu  
hori da peligr osoa.
- 12 Gaztediaren ezaugarri da  
mugak gainditzen hastea  
komeni zaizu zure jarrerak  
garbi adieraztea  
zaharren jokoei jarraitutzea  
hori litzake tristea  
zure burua pasotismoan  
gozo gozo babestea.
- 13 Inoren lotsik etzazu izan  
uste duzuna esaten  
okerrago da hori besteek  
zugatik egin dezaten  
zer axola du gero atzetik  
epaitzen ari zaitzaten?  
edozein bide harturik ere  
saia zaitez zeu izaten.
- 14 Inor ez gera hemen tamalez  
egi osoaren jabe  
bai alderantziz egi antzeko  
uste askoren mirabe  
noizbait konpondu behar al dugu  
etiketak jarri gabe  
diogun bezain finak izaten  
kostako zaigu halare.